

# EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXIII

SAN SEBASTIÁN 30 DE AGOSTO DE 1915

N.º 1135



AITA LARRAMENDI

# AITA LARRAMENDI

---

**A**NDOAIN'go uritik bi kilometro inguruan dago «Garagorri» deitzen dioten baserria. Bere murruetan ipiña dauka arri apain bat idazti onekin: «I. H. S. Eche onetan, 1690<sup>-ko</sup> eguberri egunean jayo zan Aita jesuita done ta jakintsu Manuel Larramendi ta Garagorri, joan dan eunkian fede ta Euskal-erri guziaren, ta onen izkera, oitur-on ta zorionerako iñork baño geyago 40 urtean egin zubena. Loyolatik zeruratu zan 1766<sup>-an</sup>».

Baserri eche orretan jayua da bezaz Aita Larramendi ospetsua 1609 garren urteko Abendua'ren 24<sup>-an</sup>. Amazazpi urte zituben Jesus'en lagunkidean sartu zanian; ta jakintsu ta done, egon zan Salamanka'n ikastola nagusiko maisu, ta errege Karlos bigarrenaren alargunak aukuratu zuben bere konfesoretzat.

Bañan Euskaldunak geyena goitu biar deguna da Euskal-erria'rentzat, emengo izkera ta oitura ederrentzat izan zuben lei bizi ta gogotsua.

Ala idatzi zituben ainbeste liburu gain gañekuak. Ondo esagunak dira euskaldunen artian: «Arte de la lengua vascongada o el imposible vencido», «La antigüedad y universalidad del vascuence en España», «Discurso sobre la Cantabria»; ta oyen guzien gañetik «Diccionario trilingüe español-vasco-latino», Azkenik idatzi zuben «Corografía de Guipúzcoa» izentzat dubena.

Berrizale zenbaitzuk purrustada batzuben egin dizkate lan abei, bañan benetan euskal zaleak diranak ez dute orlakorik egin bear, baizik goitu Larramendi ospetsuaren izen atsegiña.

Gorputzez aundiya zan, aundiya bezin jakintsua, jakintsua bezin ona. Loyola'n il zan 1766<sup>-garren</sup> urteko Ilbeltza'ren 28<sup>-an</sup>; ta eche done artan daude bere ezurak.